

# DIARIO VASCO

## 'Sagarrondotik' jaialdiek musika askotarikoa dakarte Hernanira

► 'Sagardoaren mezulariak' ikurra jasoko du gaur Realak

► Bihar Su Ta Gar eta Orisha's ariko dira besteak beste

DV. DONOSTIA

Sagarrondotik festaren bigarren edizioa gaur hasiko da, Real Sociedad futbol taldeari emango zaion *Sagardoaren mezulariak* ikurra-ekin. Eta bihar eta etzi musika jaialdi handiak izango dira Hernanin jarriko den karpa erraldoian. Igandean, berriz, Euskal Herriko II. Sagardo Mostra egingo da Astigarragan.

Lau egunetan zehar oso egitarau zabala burutuko da, zenbait musika saio, herri kirol proba eta sagardo-dastaketarekin. Urnieta, Hernani, Usurbil eta Astigarragan izango dira ekitaldiak eta gaur bertan *Sagardoaren mezulariak* ikurra emango zaio Real Sociedad taldeari, «Euskal Herriaren berri eman duelako Europar».

Juan Gorritik diseinatu duen ikur horretan langa edo ataka bat agertzen da, brontzekoa, eta sagastiko sarrerako langa simbolizatzen du. Iaz *Egunkaria*-ri eman zitzaion. Lehenengo edizio horretan, 2003ko martxoan, 25.000 lagun bildu ziren Hernanin, antolatzaileek adierazi dutenez.

Bi egunetan zehar sona handiko musika taldeak ariko dira Hernanitik Astigarragara bidean jarriko den karpa erraldoian; besteak beste, Fermin Muguruza Kontrabanda, Fito & Fitipaldis, Su Ta Gar, Orisha's (Kuba), Reincidentes (Andaluzia) eta Ari (Madrid). Bonoa jarriko da salgai, bi egunetarako, 25 euro kostako dena. Egun bakoitzeko sarrera, alde zurretik, 15 euro kostako da; eta egun berean 18.

Musika aldetik egitarau opa-



Ojos de Brujo taldeko lagunak. [ÁNGEL SAHÚN / EFE]

### EGITARAU

► **Gaur:** Iluntzeko Betan, Urnietako Sarobe aretoan, Sagardoaren mezulariak ikurra emango zaie Real Sociedad taldeko ordezkariak. Handik ordu erdira, *Zaharregia, txikiegia aglan* olerki eta musika emanaldia.

► **Ostirala:** Hernaniko karpa erraldoian, 22:30etan, Fito & Fitipaldis (Euskal Herria), Reincidentes (Andaluzia), Su Ta Gar (Euskal Herria), Orisha's (Kuba).

► **Larunbata:** Usurbilgo plazan, 17:00etan, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgoen arteko herri kirol lehiaketa. Eta Hernaniko karpa erraldoian, 22:00etan, Ari (Santo Domingo), Kuraia (Euskal Herria), Ojos de Brujo (Katalunia), Fermin Muguruza & Kontrabanda (Euskal Herria).

► **Igandea:** Astigarragako zenbait kaletan, goizeko 10:00etatik aurrera, Euskal Herriko II. Sagardo Mostra. 60 sagardogileren emaitza dastatzeko aukera. Dastaketa komentatua. 17:00etan, Lizaso, Egaña, Mendiluze eta Lujanbio bertsolariak

roa izango da, baina sagardo bera izango da beti ardatza, eta igandean, Astigarragan, Euskal Herriko II. Sagardo Mostra egingo da, bertara Euskal Herri oso-ko 60 sagardogilek eramango dutelarik beren emaitza. Goizeko

10:00etan hasiko da, eta eguerdian dastaketa komentatua egingo dute Domingo Arina eta Xabier Kamio enologoek.

Gaur, Urnietako Sarobe aretoan, *Sagardoaren Mezulariak* ikurra eman ondoren, *Zaharregia, txikiegia aglan* poesi eta musika emanaldia izango da. Kirmen Uriberen testuetan oinarritutako ikuskizuna da eta poeta bera ariko da bere testuak errezitatzen, aldamenen lehen mailako musikari batzuk izango dituelarik: Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda. Hainbat tokitan eskaini da ikuskizuna, eta harrera oso ona izaten ari da.

### Aimar Irigoienen saioa

Larunbatean Usurbilen egingo den herri arteko kirol lehiaketaren osagarri, Aimar Irigoien harrijasotzailearen marka-ahalegina ikusteko aukera izango da. 17:00etatik aurrera, saiatuko da esku bakarrarekin 200 kiloko harri errektangularrari eusten. Aurreko errekorra Inaxio Perurenak dauka, 180 kiloko harriarekin.

Elkarte antolatzaileak, Sagarrondotik-ek, sagardoaren kultura sustatzea du xede. Egoitza, berriz, Hernanin dauka. Jaialdiaren aurkezpenen elkarteko kide batek esan zuenez, sagardoa ez ezik, «euskara eta euskal izatea» ere oso aintzat hartzen dute.

BBC-k Ojos de Brujo taldea saritu du

DV. DONOSTIA

Ojos de Brujo taldeak irabazi du BBCren Word Music 2004 saria, Europako talde onena izendatzeko balio duen saria. Eta hain zuzen ere, Sagarrondotik jaialdi-koa izango du sari osteko lehen emanaldia.

2000an Katalunian sortutako taldea da Ojos de Brujo. Era honetara definitu dute emaitza taldekideek: «Flamenco jip-jop». Letretan kezka sozialak agertzen ditu, eta etengabe gorailpatzen du ijitoen artea. 2001ean *Vengue* diskoa plazaratu zuen, eta hurrengo urtean *Bari*.